



Boletina | Boletín

Virginia Woolf **BASQUESKOLA**
Iraila 2013 Septiembre

Gaurkotasuna Ikastaroen hasiera

Udaletako emakume hautetsientzako eskola: urtebete lidergo politikoaren sarea sendotzen

- Basqueskolaren bigarren edizioa irailean hasiko da, eta hainbat ikastaro eta tailer eskainiko dira: coachinga eta lidergoa, jendaurrean hitz egiteko teknikak, hitzaldiak eta eztabaidak...
- Ikastaroen programa berria "Emakumeen arteko aliantzak eta itunak: beste politika baterantz" jardunaldiaren barruan aurkeztu zen. SARA BERBEL ETA MARCELA LAGARDE izan ziren bertan hizlari aipagarrienetakoak.

Virginia Woolf Basqueskolak (EUEDElek eta EMAKUNDEK sustatzen duten eskola) euskal emakume alkateen eta



zinegotzien lidergoa eta jabekuntza sustatzeko ikastaro berriein ekingo dio bigarren edizioari.

Ikastaroen **eskaintza berria irailearen 24an** hasiko da: coachingari eta lidergoari buruzko tailerra, jendaurrean hitz egiteko teknikak, hitzaldiak eta eztabaidak.

Plaza-kopuru mugatua daukagunez, ikastaro bakoitza hasi baino 10 egun lehenago izena ematea ezinbestekoa da.

IKASTAROEN PROGRAMA eta IZEN-EMATE ORRIA

Editoriala



Ongi etorri ikasturte berrira. Ostera ere, Basqueskolako atearak zabalik dituzue gu guztiokin elkartzeko.

Duela urtebete ekin genion honako proiektu honi eta hasieratik bertatik guztiok batera osatzera gonbidatu zintuztegun, elkarlanean indarrak bilduta.

Urtebeteen Basqueskola prestakuntza-gune bezala finkatzeaz gain, orain udaletako emakume hautetsien sare nagusia da. Basqueskolan udaletako 56 emakume hautetsi ibili dira, gobernuan zein oposizioan.

Gure alkate eta zinegotzi sarea udaletako eguneroko lanean osatzen da; beti ere, gure ideologia ezberdintasuna, eskarmentu politikoa edo udalen tamaina alboratuz.

Batzordeetan, gobernu-batzetan, plenoetan... geure iritzia elkarbanatzen dugu, horregatik, Basqueskolan ikasten duguna emakumeontzako onuragarria izateaz gain, udal politikarentzako ere bada.

Horregatik, egokia iruditu zaigu bigarren Basqueskola hau "emakumeon arteko aliantzei eta itunei" eskainitako jardunaldiarekin hastea.

Hautetsien arteko aliantzak eta sinergiak oso garrantzitsuak dira, udal politikari ikuspuntu berria emateko eta herritarren mesederako udalak barrutik kanpora modernizatzeko.

Genero parekotasuna ongizate estatuaren oinarria da, baita gure udalen garapenerako nahitaezko baldintza ere. Udal politikaren bidez, neurri handi batean, emakumeontzako zein gizonezkoentzako eskubide, balore eta aukera berak dituen gizartea sortzen lagundu dezakegu.

Hau da emakume politikariok lehenengo pertsona jarraitu nahi dugun bidea, honen protagonistak izanda eta bidean gure lankideekin topo eginez.

Virginia Woolf BASQUESKOLAren 2. Edizioaren Inaugurazioa
Eudel Bilbao, 2013ko ekainaren 28a

Hitzaldia:
Ibone Bengoetxea, EUDEleko Elkarteburua

Ikastaroak 2013



Zer eskaintzen du Basqueskolak?

- **Prestakuntza praktikoa**, Basqueskolan talde-dinamika parte-hartzaileetan egiten da lan: tailerrak, coaching, mahai-inguruak eta eztabaidak.
- **Udaletatik hurbilago**, saio deszentralizatuak eskaintzen dira hiru lurraldeetan. Bilbao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz.
- Ikastaro guztiak **doakoak** dira.
- Edukien diseinua emakume hautetsien beraien **eskari eta beharrianen** arabera: 'Iradokizunen gutunontzia' eta ebaluazio-inkestak.



2013ko iraila-abendurako ikastaroak

Programa berria **irailaren 24an** hasiko da, beharrezkoa da ikastaroa hasi baino **10 egun lehenago** izena ematea.

Ikastaroak **hiru prestakuntza ildo** hauetan banatuko dira:

- 1 **Coachinga eta Komunikazioa; komunikazio eta sozializazio teknikak**
 - > **Coachinga eta lidergoa (I. maila)**
Bilbao. Eudel. Ercilla, 13 / 16:30 - 19:30
· 5 sesio
irailak 24 / urriak 8 eta 22 / azaroak 5 eta 19
 - > **Jendaurrean Hitz egiteko teknikak (Euskaraz)**
Donostia. Okendo Kultur Etxea.
16:30 - 19:00 · 4 sesio
urriak 2, 16 eta 30 / azaroak 6
- 2 **Ateneoa, mintegi eztabaida**
 - > **Eratzen gaituzten rolak: Emakumezkoen identitatea eta erantzukizun politikoa**
Vitoria-Gasteiz. Villasuso Jauregia. / 9:30-14:30
1 sesio
urriak 23
- 3 **"Berbetan", emakume zinegotzi ohiek eta gaur egungoek emakumeek tokiko politikan izan duten iraganari eta orainari buruzko ikuspegiak trukatu**
 - > **Politikagintza aldapa gora egiten denean II: Karguan jarduteko gakoak**
Donostia. Okendoko Kultur Etxea. / 10:00-14:00
1 sesio
azaroak 12

IRUDI GALERIA



Monografikoa

Emakumeen arteko itunak



Basqueskolaren bigarren edizioa “Emakumeen arteko aliantzak eta itunak: beste politika baterantz” izenburuko jardunaldiaren barruan ekainaren 28an aurkeztu zen, Eudelen Bilboko egoitzan.

***Marcela Lagarde**
mexikar antropologoa,
aktibista eta ONU/NBE
Emakumeak-en
aholkularia

***Sara Berbel**
Emakumeen Institutu
Katalanaren presidente
ohia



Marcela Lagarde

“Politika arloan, emakumeek ageriko aitortza eta adostasun publikoaren abala jaso behar dute”

- “Lidergoetarako, baimentzearen figura oso garrantzitsua da: gure lankide emakumezkoen gure izenean zerbait egin eta adierazi dezaten baimenik ematen ez badiegu, ezin izango ditugu hain garrantzizkoak diren lidergoak abalatu”.

“Emakume baten etsairik handiena ez da beste emakume bat, hori politikan erabat txertatuta dagoen pentsaera patriarkala da”

- “Erasorik larriena gure artean txarto esaka ibiltzea da.
- Nazioartean gero eta emakume gehiago dira, haien ideologiako oinarriak tinko eutsi arren, pentsaera politiko desberdinen artean, bat datozen puntuak nabarmentzen dutenak”.

Hitzarmenerako gakoa

- “Hitzartu ahal izateko, norberak generoaren kontzientzia politikoaz jabetu behar du, ondoren taldekideekin partekatze”.



Sara Berbel

“Emakumeon talentoa ez bada aprobetxatzen erakundea da galduko duena”

- “Emakumeak ez dira kuota hutsa eta, horregatik, arlo politikoan, batzuetan, haiengandik aldentzeko joera dago.
- Baina ez da kaletik igarotzen den lehenengo emakumea hautatzen. Kuotak zera esan nahi du: curriculum, gaitasun eta esperientzia berdintsua izanik, emakumea hautatuko dela, erakundearen barruan nolabaiteko oreka eman arte. Ikerketek erakutsi dutenez, kuotarik gabe boluntariotza ez dabil”.

“Batzuetan botereaz jabetzen diren emakumeak deabrutu egiten dituzte, trabestitu egiten direlako, indarrean dagoen eredu patriarkala bereganatzen dutelako”

- “Botereaz jabetzen diren emakume askok emakumeen mugimenduaren ibilbide historikoarekiko sentikortasun gabezia handia erakusten dute eta, hain zuzen ere, mugimendu horri zor diote eskuratu duten posizioa”.
- “Emakume batzuk haien lantaldeetara beste emakume batzuk ez ekartzeaz gain, gizonez inguratuta egoteaz harro agertzen dira. Horren ondorioz, boterean oso isolatuta dauden emakumeak daude”.



Zer da Basqueskola?

Zergatik da beharrezkoa?

- **Lankidetzeta-sarea**, networking gehiago behar dugu. Indarrak batu eta sinergiak erabili oztopoei aurre egiteko; izan ere, oztopo hauek asko izateaz gain, udal politikan diharduten emakume guztientzako berberak dira.
- **Lidergo politikoa**, emakumezko alkate eta zinegotzien lidergoaren bultzadan Basqueskola hedatze-uhin bat izatea nahi dugu. Basqueskolatik igarotzen diren emakume hautetsiak udaletara informazioa igortzeaz arduratzen dira. Zehazki, beraien herrietan eta herriko bizitzan orokorrean, erabakiak hartzeko orduan emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzen dute.
- **Nazioarteko lotura**, inguratzen gaituen ingurunera hurbildu nahi dugu, batez ere Europara. Basqueskola ez da prestakuntza soilik, beste herrialde batzuetako emakume hautetsiekin ere sareak ezarri nahi ditu. NBA Emakumeak, ‘Iknow politics’ plataforma, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (CMRE)...



VIRGINIA WOOLF

BASQUESKOLA

Nork bere eskola Una escuela propia



Nazioarteko



ONU/NBE EMAKUMEAK ERAKUNDEAREN 2012-2013 URTEKO TXOSTENA

Ikerketak emakumeen mundu-mailako egoera nahiz, hurrengo gaiei dagokienez, politika, gizarte, ekonomia eta legeriaren alorreko akordioak ikertzen ditu : burujabetza (ahalduntzea), berdintasuna, bereizketa....



Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordearen 2013ko bilera nabarmendu behar da, izan ere, oso garrantzitsua izan zen emakume eta neskatxoek aurkako indarkeria desagerrarazteko eta saihesteko neurriak buruzko nazioarteko akordioa sustatzeko.

<http://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2013/8/annual-report-2012-2013>

EUSKADI ETA PALESTINAKO EMAKUMEAK euren esperientziak trukatu dituzte Gaza eta Jerusalem

Euskadiko delegazioak feminismoaren aurkako Hamasen fundamentalismoa salatu du.

http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/06/29/paisvasco/1372506393_109765.html

ONU/NEB EMAKUMEAK AGENDA ERALDATZAILEA hartzea eskatu du Genero Berdintasuna Errealitatea Bihurtzeko

2013ko ekainaren 26an.

<http://www.unwomen.org/es/news/stories/2013/6/un-women-launches-global-call-for-a-transformative-agenda-to-make-gender-equality-a-reality>

EMAKUME POLITIKARIEN OZTOPO ETA ESTRATEGIAK Latinoamerika eta Karibean

CNN albiste-kanalak emakumeek politikan aurkitzen dituzten oztopoei eta haien partaidetza zein hautaketa sustatzeko erabilitako mekanismoak buruz Neus Bernabeuri -Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) Latinoamerika eta Karibeko genero-saileko Koordinatzaileari- egindako elkarrizketa. (8/07/2013).

<http://www.youtube.com/watch?v=gLBwQWDpFK8&feature=youtu.be>

UDAL POLITIKAN EMAKUME GEHIAGO EGON DAITEZEN UCLGk HARTUTAKO ERABAKIAK

2013ko ekainaren 16an Lyon (Frantzia) Hirien eta Tokiko nahiz Eskualdeko Gobernuen (UCLG) Batzar Iraunkorrak Genero Berdintasunari dagokienez hartutako erabakien laburpena. Erabaki garrantzitsuak hartu ziren UCLGn emakume gehiago egoteko, baita erabakiak hartzerakoan euren partaidetza sustatzeko ere.

<http://women.uclg.org/2013/06/decisions-of-uclg-standing-committee-on.html>

UCLGren gobernu-organoen erabaki nagusien laburpena:

http://www.uclg.org/sites/default/files/SP_Lyon_Key_Decisions_PUBLIC.pdf

EMAKUMEAK POLITIKAN

- Women in politics. The Guardian (UK)
<http://www.guardian.co.uk/politics/women>

- Women in politics. Huffington Post
<http://www.huffingtonpost.com/news/women-in-politics/>

Berriak



UCLGren Batzar Nagusia eta Mundu Mailako Kongresua

UCLGren hurrengo Batzar Nagusia eta Munduko Biltzarra Rabaten egingo da Marokon, 2013ko urriaren 1etik 4ra. Informazio gehiago hemen: <http://www.rabat2013.com>

Emakume Berritzaileentzako 2014ko EBren saria

Urriaren 15 arte

Emakume ikertzaileen ekintzailetzari eta berrikuntzari egindako ekarpena sustatzeko

Aurkezteko aukera dutenak: EBren Estatuetan edo Ikerkuntza eta Garapeneko 7. Esparru Programari (FP7) atxikitako herrialdeetan bizi diren emakumeak.

http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index_en.cfm?section=women-innovators

Emakumeen Berdintasunerako Foroa, Euskadi

EMAKUNDEK antolatutako emakumeen Berdintasunerako X. Foroa 2013ko urriaren 1etik 31ra egingo da Euskadiko hainbat udalerritan. Ardatza "Berdintasuna" izango da: gizarte osoari mesede egiten dion eskubidea". <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-foro2013/es/>

Topaketa Beldur Barik 2013

IV. Beldur Barik Topaketa! Basaurin izango da, 2013ko azaroaren 30ean. Beldur Barik Berdinsareak udal-sareak abian jarritako ekimena da, gazteen artean berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna sustatzeko...

<http://www.beldurbarik.org>

Ekonomia Feministari Buruzko Kongresua, Sevillan

Pablo de Olavide Unibertsitateak ekonomia feministari buruzko IV. Kongresua antolatu du 2013ko urriaren 3, 4 eta 5ean Carmonan, Sevillan: <http://riemann.upo.es/personal-wp/congreso-economia-feminista/>



Lotura interesgarriak

ONU/NBE EMAKUMEAK

<http://www.unwomen.org/es/>

Tokiko bizimoduan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutunaren Behatokia <http://www.charter-equality.eu/>

Hiri eta Tokiko nahiz Eskualdeko Gobernuen Munduko Sarea (UCLG) <http://www.uclg.org/>

Emakume eta Politikari buruzko Nazioarteko Informazio Sarea - iKNOW Politics <http://iknowpolitics.org/es/inicio>

Eudel (Berdintasun saila) <http://www.eudel.net/eu/areas/igualdad>

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/eu/>